

Mantible

A r a b a k o E r r i o x a k o I K A E u s k a l t e g i a

El euskaltegi IKA de Rioja Alavesa y Viana además de dar clases de euskera a los/as adultos/as, realiza actividades destinadas a favorecer el conocimiento de la cultura euskaldun y el uso del euskera. Esta publicación que tienes entre manos quiere hacer de puente para todos/as aquellos/as que todavía no se han acercado al euskera o apenas lo conocen. Para ello contaremos con la ayuda de aquellos/as que han aprendido el idioma o lo están haciendo ahora. Esperamos que disfrutéis del contenido y si os animáis a aprenderlo no dudéis en acudir al euskaltegi IKA.



Eta barrualdean

■ **Arturo Campion Jaimebon** fue un notable político y escritor con una abundante producción literaria. **p. 8.**

■ **"Maite dut, izugarri atsegin dut..."** eta horrelakorik ikasi nahi izanez gero, "zuek ere euskaraz" atalean duzu aukera. **3. or.**

■ **"Estoy muy a gusto en el módulo de autoaprendizaje, pero si tuviera oportunidad no dudaría en integrarme en algún grupo presencial".** **p. 2.**



Markez eta Martikorena Oiongo zinean

Mikel Markez eta **Erramun Martikorena** kantariak kontzertu bikaina eskaini zuten Oiongo zinema aretoan pasa den irailean. IKA euskaltegiak antolatu zuen 2011-2012 ikasturtari hasiera emateko asmotan. **8. or**

Oiongo IKA euskaltegia
Diputazio kalea, 32
01320 Oion
945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia
Berberana zeharkalea, 5
01300 Biasteri
945 621 055

<http://www.ikanet.net>
errioxa@ikanet.net



solasean.....

Pilar Marteles Ripa

Es muy posible que a muchos de vosotros Pili os resulte familiar, ya que trabaja de cara al público. Por la mañana acude al ayuntamiento de Leza como auxiliar y por las tardes trabaja en la biblioteca de Lanciego.

Aunque es natural de Beasain, ya hace unos cuantos años que reside en Lanciego. Es alumna veterana del euskaltegi, donde estudia euskera en el módulo de autoaprendizaje. Vamos a ver cuáles son sus impresiones en torno al euskera, y sobre todo su experiencia en un módulo tan de moda, pero a la vez tan desconocido.



Noiz hasi zinen euskara ikasten? Orain dela hogeit urte gutxi gora behera, Beasainen bizi nintzanean. Oso gogokoa nuelako hasi nintzen ikasten, eta oraindik ere

hala jarraitzen dut. Beasainen nengoenean izugarri aurreratu nuen, baina utzi behar izan nuen lan-ordutegiarengatik, gainera nire taldekideek ere utzi behar izan zuten. Saiatu nintzen berriro, baina euskaltegian ez zegoen nire mailako talderik.

Empecé hace unos veinte años en Beasain. Me gustaba mucho y por eso decidí aprenderlo. Adelanté mucho, pero no pude continuar por problemas de horario.

Zer dela eta aukeratu zenuen autoikasketa modulua?

Lan-ordutegiarengatik, batez ere. Autoikasketak abantailla ugari dauzka alde horretatik. Edozein momentutan lan egiteko aukera daukazu, ez dago-eta ordutegirik.

Zaila egin zaizu bakarrik ikastea?

Ez. Oro har, oso gustura nabil, baina nahiago nuke klasera joan, dudarik gabe. Batzuetan ikaskideen falta sumatzen dut, ez dakit taldea izatearen sentsazio hori...

Nolakoa da autoikasketa? Zer egiten duzu edo nolakoa da lan erritmoa?

Dakizuen bezala ordenagailu bidezko programa da, BOGA deritzana. Euskarri informatikoaz gainera, tutorea ere izaten dugu.

Nahiko ondo dagoela uste dut. Tira, gauza batzuk errepikatzen dira, baina, oro har, nahiko egokia da. Erritmoa dela eta, ostiralero joaten naiz euskaltegira tutorearekin egotera, zalantzak argitu-eta tarte batez hitz egitera; BOGAk ez dizu-eta horretarako aukerarik ematen. Bestetik, tutoreak bestelako lanak planifikatzen ditu, hala nola, idazlanak, teoria, ariketak...

Todos los viernes me junto con el tutor para resolver dudas que van surgiendo y practicar el habla, ya que el soporte informático no lo propicia. Además, planificamos otro tipo de trabajos, como redacciones, ejercicios diferentes, teoría...

Beste kontu bat da etxean nolako planifikazioa egiten duzun. Niri egunero ordubete ematea gustatzen zait, hala ere, beti ez dut posible izaten, beraz, zenbaitetan ordubete baino gehiago ematen dut ordenagailuan.

Nola ikusten duzu euskara Arabako Errioxa? Zer egin daiteke egoera hobetzeko?

Lehen baino hobeto ikusten dut, gero eta gehiago entzuten da kalean eta horrek oso pozten nau. Nire ustez gauza asko egiten ari dira egoera hobetzeko.

Euskaraz hitz egiteko aukerarik ba al daukazu (lagunekin senideekin...)?

Bai, nire semeekin, ikastolako jendareekin, baita senideekin ere. Hala ere, ez da nire ama-hizkuntza eta normalean gaztelaniaz hasten naiz.

Zer esango zenioke euskara ezagutzen ez duenari?

Ikastea merezi duela, eta zail samarra bada ere, oso interesgarria dela.


La situación del euskera en Rioja Alavesa creo que está algo mejor que antes. Se están haciendo cosas para mejorar. Durante el año se organizan varias actividades como, teatro, charlas, cine... Además hace un par de años que contamos con el Servicio de Euskera en la Cuadrilla; y eso, sin duda, es un paso muy importante.



zuek ere euskaraz.....


■ Aquí encontrarás conversaciones sencillas que se nos plantean todos los días, bien con los/as amigos/as, la familia, comprando en la tienda, tomando algo... Iremos proponiéndote distintas situaciones periódicamente, para que vayas aprendiendo. A continuación trataremos sobre los **gustos** o **preferencias**. La siguiente situación sucede leyendo la cartelera del cine.

ZINEMARA



-Kaixo Pantxo, zertan ari zara? (*Hola Pantxo, ¿qué haces?*)
 -Ikuskizunen saila irakurtzen, zinemara joan nahi dut-eta. (*Leyendo la cartelera. Quiero ir al cine.*)
 -Ongi, zurekin joango naiz. Zer dago?
 -Nosferatu. **Izugarri gustatzen zait.** (*"Nosferatu". Me gusta un montón.*)
 -Nosferatu? **Nik ez dut batere atsegin,** oso astuna da-eta (*"Nosferatu"? A mí no me gusta nada. Es muy pesada.*)
 -Tira, nik beldurrezko filmak **oso maite ditut** (*Bueno. A mí me gustan mucho las películas de terror.*)
 -Begira, Rocky ematen dute! (*¡Mira, echan "Rocky"!*)

-Rocky **gogoko duzu?** Mesedez, oso film eskasa da. (*¿Te gusta "Rocky"? ¡Por favor! Es una película muy mala.*)
 -Bai zera! Oso entretenigarria eta sakona da. Gainera Stallonek izugarri ondo lan egiten du. (*¡Qué va! Es muy entretenida y profunda. Además Stallone trabaja muy bien.*)
 -Bada, nik **ez ditut halako filmak gustuko.** Nosferatu ikusi **nahiago dut.** (*Pues a mí no me gustan ese tipo de películas. Prefiero ver "Nosferatu".*)
 -Tira, zoaz Nosferaturekin aspertzera, ni Rocky ikustera noa-eta. (*Vale. Vete a aburrirte con "Nosferatu". Yo me voy a ver "Rocky".*)



■ Como véis hay varias formas de expresar en euskera nuestros gustos o preferencias. "Me gusta, no me gusta" o similares los expresaremos con lo que hemos remarcado en letra negrilla. A estas expresiones añadiremos una serie de graduadores: *izugarri, oso, batere...* En el siguiente recuadro lo tenéis resumido.



(**izugarri**) gustatzen zait / me gusta (mucho)
 (**dezente**) atsegin dugu / nos gusta (bastante)
 ez du (**batere**) maite / no le gusta (nada)
 (**gehiago**) gustatzen zait / me gusta (más)
 (**ikusi**) nahiago dut / prefiero (ver)

HIZTEGIA (adjek-tiboak)

■ Adjetivos que podéis utilizar para reforzar vuestras preferencias. Como la situación va de películas, aquí tenéis unos cuantos que podéis asociar a ellas.

astuna (pesada), **hunkigarria** (conmovedora), **korapilatsua** (liosa, complicada), **samurra** (tierna), **gomendagarria** (recomendable), **ezkorra** (pesimista), **azalekoa** (superficial), **barnekoia** (intimista), **txundigarria** (asombrosa), **gaurkotasun handikoa** (actual), **latza** (dura), **maisu-lana** (obra maestra), **arrakastatsua** (exitosa), **aspergarria** (aburrida), **bortitza** (violenta).



gure kuttunak.....

■ Esta página la dedicamos a recoger los lugares o rincones más queridos por nuestros colaboradores. Ellos mismos nos explicarán cómo llegar y por qué les resulta tan especial. En esta ocasión...

Sotora eramango zaituztet



Sotora eramango zaituztet, zatozte nirekin eta Lapueblako txoko berezi hau ezagutuko duzue.

Sotora eramaten duen bideari herriaren erdialdean eman ahal diogu hasiera; lehenengo, kooperatibara doan kalea hartuko dugu. Aurrera jarraitu behar dugu asfaltatu gabeko bide batetik, eta gero ezkerredera joko dugu hormigoizko beste bidexka batetik. Honetan hirurehun metro egin eta berehala iritsiko gara Sotora. Hemendik Ebro ibaia ikusten da.

Leku hau oso atsegina da. Ni txikitan askotan etortzen nintzen gurasoekin bainatzera, leku egokia zen-eta. Orain izugarri aldatu da, presa eraiki dute eta oraingo gazteak hona hurbiltzen dira arrantza egitera. Usaina ere berezia da niretzat eta txikitako oroitzapenak ekartzen dizkit. Inguru paregabea eta lasaia da.

Un paseo al Soto

Venid conmigo y os llevaré al Soto, un lugar especial de Lapuebla de Labarca.

Podemos empezar el paseo en el mismo centro del pueblo. Cogemos la calle que lleva a la cooperativa y seguiremos hacia adelante por un camino sin asfaltar. Enseguida tomaremos otro camino a la izquierda y siguiendo unos trescientos metros por él llegaremos al Soto.

Desde aquí podemos ver el río Ebro. Es un lugar muy agradable y yo, de pequeña, venía a menudo con mis padres a bañarme, pues era un lugar muy adecuado para ello. Ahora ha cambiado mucho. Han construido una presa y vienen los jóvenes a pescar.

El olor también es muy especial para mí y me trae muchos recuerdos de mi niñez. Es un paraje tranquilo y sin igual.





euskarak lagun.....

■ Hemos estrenado nuevo curso, y como ya es costumbre, estas dos páginas de "euskarak lagun" las dedicamos a una serie de instantaneas de nuestros alumnos/as. Aquí tenéis a algunas imágenes.





euskarak lagun.....





euskaltzaleak.....

Arturo Campión Jaimebon (1854 - 1937)



Iruñean jaio zen 1854ko maiatzaren 7an. Idazlea, euskalaria, abokatua, historialaria eta politikaria izan zen. Euskaldun berria, heldutan ikasi zuen euskara.

Euskaltzaindiaren fundatzaileetakoa eta euskaltzain osoa izan zen (1918-1937). Espainiako Real Academiako partaide ere izan zen.

Politikan, Iruñean zinegotzi (1881), Nafarroatik Espainiako Gorteetarako diputatu (1893) eta Bizkaian senatari izan zen.

Gaztetan, errepublikazale federalista izan zen ideologiaz, baina gerora Euskal Herriarenganako –eta, bereziki, Nafarroarenganako– maitasuna izan zuen gidari bere jardueran.

Asko idatzi zuen. 40 aldizkari baino gehiagotan izan zen kolaboratzaile. Gaztelaniaz idatzi zituen bere lanik gehienak: "Los orígenes del pueblo euskaldun. Iberos, celtas y vascos", "Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua vasca", "Gramática de

los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara", "El genio de Navarra", "Pedro Mari" eta "Marko" IKAk komikian argitaratu zituen ipuinak, "Blancos y Negros", "La bella Easo", "El bardo de Itzaltzu" (duela ez asko zinematatan ikusi ahal izan dugu egokitzapena, "Gartxot" izenarekin...) Euskaraz ere lan egin zuen: "Orreaga", "Denbora Antxiñakoen Ondo-Esanak", "Okendoren Eriotza"...

Donostian hil zen 1937ko abuztuaren 18an.

"Zuen Lege Zar beneragarriak galdu zifituzten atzo. Zorigaitz aundia da galtze au. Ez itzazue, arren, galdu orain, zuen izkuntz paregabea; lotsez beteko zaituzte galtze orrek Jaungoikoaren eta kondairaren aurrean". "Habéis perdido vuestras viejas leyes. Gran desgracia es ello; pero por Dios, no perdáis ahora vuestro incomparable idioma; esta pérdida os cubriría de vergüenza, ante Dios y ante la Historia."

Gramática de los Cuatro Dialectos Literarios de la Lengua Vasca. Arturo Campión.


Nació el 7 de mayo de 1854 en Pamplona. Fue político foralista, escritor, abogado, historiador y amante del euskara. Aprendió euskera siendo adulto.

Como lingüista fue uno de los fundadores de la Real Academia Vasca y académico tanto de la Real Academia Vasca como de la Real Academia Española.

En política destacó especialmente: fue concejal de Pamplona, diputado en las Cortes españolas por Navarra y senador en Vizcaya. En la juventud fue de ideología republicana y federalista; más tarde su amor por Euskal Herria (y sobre todo por Navarra) guió su trabajo.

Su obra literaria es muy amplia. Destacó en su vertiente narrativa. Colaboró en más de 40 diarios y revistas. Escribió sobre todo en castellano pero también en euskera (ver relación en el texto en euskera). IKA ha editado dos comics con cuentos suyos: "Pedro Mari" y "Marko". Hace poco se ha estrenado en los cines "Gartxot", basada en un cuento de Campión.

Murió en San Sebastian el 18 de agosto de 1937.



■ El pasado 16 de septiembre el Euskaltegi **IKA** organizó un entrañable concierto para dar comienzo al nuevo curso 2011-2012. **Mikel Markez** (Rentería, 1971) y **Erramun Martikorena** (Baigorri, 1943) fueron los invitados para la ocasión, quienes nos deleitaron con sus canciones durante dos largas horas. Unas veces cantando juntos y otras por separado, dieron un gran concierto que ya guardamos en el recuerdo junto con otros grandes que ya pasaron por Rioja Alavesa, como Mikel Laboa, Ruper Ordorika o el grupo Oskorri.

Casi al final del concierto esperabamos con impaciencia escuchar en la voz incomparable de Erramun Martikorena la canción **Xalbadorren heriotzean** compuesta por **Xabier Lete** (Oyazun, 1944 – San Sebastian, 2010) en homenaje al gran bertsolari **Fernando Aire Etxart**, "Xalbador" (Urepele, 1920-1976). De Xalbador ya os hablamos en el pasado número de septiembre, el cual inspiró al recientemente fallecido escritor, poeta y cantautor Xabier Lete para componer esta canción, que ya es una clásico en la cultura de Euskal Herria.

Adiskide bat bazen
benetan bihozbera
poesiaren hegoek
sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari
bakardadez josia
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten
oinazez ikasia... ikasia

Non hago, zer larretan
Urepeleko artzaina
mendi hegaletan gora
oroitzapenen gerora
ihesetan joan hintzana. (Bis)

Hesia urratu-
libratu huen kanta
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela
bertsorik sakonena
inoiz esan ezin diren
estalitako egien
oihurik bortitzena... bortitzena

Non hago....



euskaraba.com
arabako euskararen ataria

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

TESTUAK: Arabako Errioxako IKA ■ Maite Manero ■ Joaquín de Gamboa ■ Xabier Lete
ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA ■ María Jiménez Arrausi ■ Maite Manero ■ Euskonews ■ Gorka Mauleon
ILUSTRAZIOAK: Asisko Urmeneta (Gartxot eta A. Campión) ■ Alberto Arribas Merino (ITE)